

Izadi Furundarena Agirre

F maila • 3 saria

Izadi Furundaren Agirre naiz, hamar urte ditut eta dantzazale eta musikazalea naiz. Nire koadernotxoan burura etorritako ideiak idaztea gustoko dut eta baita eskulanak egitea ere. Nire ipuineko koloretako zuhaitzak ezagutu nahi badituzu irakurri eta ea gustatzen zaizuen.



KOLORETAKO ZUHAITZA

Ekiak 10 urte ditu, Araman bizi da eta egunero Ordiziako eskolara joaten da, oinez egiten du ibilbidea. Egunero egiten du bide bera, egunero kasu egiten die bere ondotik autoz pasatzen diren herritarrei, egunero ikusten du bizilaguna txakurra paseatzen, egunero ikusten ditu zuhaitz berak, batzuetan geldi-geldirik eta hurrengoan haizearekin batera dantzan.

Ekia astearte goizean jaiki, gosaldutxo, jantzi eta ikastolara abiatu zen, goizero bezala bide bera egin zuen, autoz pasatzen ziren herritarrei kasu egiten zien, bizilaguna kaletik txakurra paseatzen ere ikusi zuen eta egunero bezala betiko zuhaitzak ere ikusi zituen. Hasieran ez zen konturatu zerbait arraroa zegoela baina geroxeago ohartu zen, zuhaitzak arraro xamar zeudela.

Zuhaitzei begira egin zuen ibilbidea, Ekia bidean zihoala konturatu zen zuhaitzak kolore morea, urdina, laranja, berdea... zituztela. Arraro xamarra zela pentsatu zuen eta halaxe zen. Ikastolara heldu zenean irakasleak goizean ikusitako edo egin zuten zerbait kontatu behar zutela, eta Ekiak orduan bidean koloretako zuhaitzak ikusi zituela kontatu zien gelakideei. Hasieran inork ez zion sinetsi baina bere aurpegiak gezurretan ez zebilela erakusten zuen. Gelakide guztiak ahozabalik geratu ziren.

- Nola da posible koloretako zuhaitzak egotea?-galdetu zuen Julenek.

Orduan gelakideak erantzun baten bila denak batera hizketan hasi ziren, aztoratu egin ziren, oilategi bat zirudien gelak. Irakasleak ahotsa altza behar izan zuen klasea lasaitzeko.

- Isilik, isilik, nahikoa da!

Irakasleak oinez ibilaldia egitea proposatu zien, horrela zuhaitzak koloretakoak izaten jarraitzen zuten ikusteko. Aramara iristen hasi zirenean gelakideak zuhaitzak koloretakoak zirela ikusten hasi ziren. Gelakide bat ia, ia mareatu ere egin zen eta bere lagunak kezkatzen hasi ziren, laguntza eskatu zuten baina berehala bere onera etorri zen.

Denak zuhaitzen bueltan biraka hasi ziren, kolorea zerk ematen zien jakin nahian.

- Agian ostadarrak emango zizkion koloreak!- esan zuen Lizarrek.

- Edo beharbada sustraietatik ura hartzen dutenean nonbait koloretako putzuak egongo dira-esan zuen Ekiak.

Erantzuna jakin nahian guztiek basoaren erdian ikusmiran jarraitu zuten eta halako batean irakasleak dei egin zien:

- Etorri denok eta begiratu haritz honen ipurdiari.

Banan-banan haritzaren ingurura gerturatu ziren eta bertan sustraiak kolore desberdinetakoak zituela ikusi zuten. Irakaslea sustraiaren inguruko lurra mugitzen hasi zen eskuekin eta ikasleak, inbidiatan gauza bera egiten hasi ziren arbolaren bueltan.

Halako batean, lurraren azpian putzu txiki batzuk topatu zituzten, denak ere kolore desberdinetakoak. Hori zen erantzuna, ura kutsatuta zegoen margoz eta sustraiak ur hori zurrupatzean kolorea ere aldatu egin zitzaien.

Basozainari deitu zien eta honek ingurua behatu eta arazoari konponbidea jarri zion. Hurrengo goizean, Ekiak ikastolara bidean eguneroko bizilaguna, autoa...eta eguneroko zuhaitzak ikusi zituen, berde-berdeak.